

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2012ko irailaren 19a. IX. urtea. 2.402. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)



Hauspoako, merkatarien elkarteko, Xeplako, udaleko, baserrietako eta postuetako hainbat ordezkari aurkeztu zuten azoka berezia. I.TERRADILLOS

## Kontsumo arduratsua bultzatuko du Denbora Bankuak

Tolosako egitasmoak bi urte eta erdi bete ditu; ikasturteko lehen bilera bihar egingo dute, kultur etxean, 19:00etatik aurrera 02

**Joanes Gibelalde**  
Bidalaria

«Bizikleta ez da mugitzeko ibilgailua soilik, jendearengana iristeko balio du»

Mugikortasun Astearen barruan ikus entzunezkoa eskainiko du, gaur, 19:30ean, Tolosako Errotan

**Elkarrizketa 06**

## Inoiz baino postu gehiago

Igandean egingo dute Ibarra Azoka eta Piparra azoka berezia; aurten 65 postu egongo dira aukeran prestatuko dituzten bi gunetan

Ibarra merkatarien elkarteak estreinako zune bat izango du Emeterio Arrese parkean, honez gain urteroko lehiaketak egingo dira 07

## ELA errepidera atera da irailaren 26ko grebarako deia egiteko

Tolosaldeko eta Goierriko sindikatuko 120 ordezkari elkartu dira N-1 errepideko Irura eta Villabona arteko zatian protesta egiteko 03



N-1 errepidearen ertzean elkartu dira 120 ordezkariak. I.G.L.

## Villabona eta Zizurkil arteko lasterketa egingo dute euskararen alde

«Euskaraz bizi nahi dut» lelopean egingo dute ibilbidea; «familia giroan egiteko moduko ekimena» dela azaldu dute antolatzaileek 06

## ‘Urki’ eta Alkortaren arteko apustua Zizurkil Goiko Zaldu sailean, igandean

**Jexuxmari Ormaetxea**  
Segalaria

«Alkortak argi erakutsi zuen, Leitzan, segan asko egiten duela»

**Mikel Alkorta**  
Segalaria

«‘Urki’ segalari oso gogorra da, baina borroka pixka bat ematea espero dut» 05

**Akademia Pausoka**

**HIZKUNTZAK**  
- Ingeleza (Euskaraz, hezkuntza, irakaskuntza, azterketak, errefortzua...)  
- Alemana - Arabiera - Italiara  
- Itzulpenerak  
- Irakaslego kualifikatua

**ERREFORTZUA**  
- Frantsesa - Matematika - Kimika - Gaztelania - Matematika - Euskarazko irakaskuntza - Tardor berrak

Martin J. Iraola, 2. behe 20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
943.249.161 | 686.971.962

# Nazioarteari buruzko mintegia urriaren 8an hasiko da

Jesus Torquemadak gidatuko ditu saioak aurtun ere, Tolosandean Ikastn-ek antolatutako laugarren mintegian

## I. Urkizu

Tolosaldean Ikastn-en antolatutako IV. Nazioarteko Gaurkotasunari buruzko Mintegia, datorren urriaren 8an hasiko da.

Aurreko aldietan bezalaxe, Jesus Torquemada izango da saioen gidaria, nazioarteko politikaren analista ikuspegitik.

Saioak gaztelaniaz izango dira, eta Topic zentroko aretoan. Guztira sei saio izango dira; astelehenetan bilduko dira, 19:00etatik 21:00etara bitarte, azaroaren 12ra arte.

Ikastn-eko Ikaskuntzako Bitartekotza Zerbitzuko antolatzaileek azaldu dutenez, mintegiko egitaraua aldakorra izango da, izazko moduan; horrela beraz, unean uneko nazioarteko gaurkotasunera egokituak dituzte saioetako gaiak.

12 orduko ikastaro honetan izena emateko, interesa besterik ez dela izan behar nabarmendu dute antolatzaileek. Plazak, ordea, mugatuak izango dira. Izena eman nahi duen edonork, [www.ikastn.com](http://www.ikastn.com) webgunean egin dezake, beharrezkoak diren datuak beteta; horrez gain, 36 euro ordaindu beharko da.

Informazio gehiagorako, aipaturiko webgunea bisitatu daiteke, eta baita 615 77 56 78 telefonora deitu nahiz [info@ikastn.com](mailto:info@ikastn.com) helbiera idatzi ere.

• [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)



Agurtza Zubero, Aitziber Eguzkitza, Naiara Lasarte eta Ana Sanz aurkezpenean. R. CALVO

# Egiazko ekonomia alternatiba lortzeko bideak jarriko ditu Denbora Bankuak

Lehen bilera bihar izango da; aurtengo berrikuntza, aplikazio informatikoarena izango da

## I. Urkizu

«Egiazko ekonomia alternatiba bat eskaintzea» da Tolosako Denbora Bankuaren helbururik behinena; hala azaldu dute, Agurtza Zubero Berdintasun teknikariak, eta Berdintasun Bankuko kide diren Aitziber Eguzkitzak, Naiara Lasartek eta Ana Sanzek, aurkezpen ekitaldian.

Bihar izango da lehen bilera, 19:00etan, kultur etxean, eta besteak beste, egitasmoa aurkezteko probestuko dute saioa: adibide praktikoa jarriko dituzte eta

aurtengo berrikuntza den aplikazio informatikoa ere hizpide izango dute.

Aitziber Eguzkitzak, hainbat arrazoi azaldu ditu, Denbora Bankua bezalako egitasmoak antolatzeko, baina besteak beste, «emakumeen jabetza» lantzea jo du garrantzitsutzat. Izan ere, antolatzaileen ustez, horrelako egitasmoak «oso garrantzitsuak» dira matxismoaren kontra egiteko.

Jomuga honi, krisi egoeraren ondorioak ere gehitu behar zaizkio. «Krisi garaian, bereziki, feminismoa, duintasuna eta kontsumo arduratsua bultzatu behar ditugula uste dugu», dio Eguzkitzak.

Horrela beraz, funtsean, lana eta zerbitzuen parekidetasuna sustatu nahi dute Denbora Bankuarekin: «Izan ere, badira emakumeen zereginak hartzen diren zenbait lan, baina ez dute zertan hala izan behar».

kumeen zereginak hartzen diren zenbait lan, baina ez dute zertan hala izan behar».

## Garrantzitsuenak, denbora

Tik-Tak Truk denbora bankuak zerbitzuak eskainiko ditu, eta horri begira, denbora jo dute garrantzitsutzat: «Hau da zerbitzuak zenbatzeko erabilten dugun unitatea».

Orduak positiboan eta negatiboan kontatuko dituzte, eta kide bakoitzak bere jakintza nahiz trebetasunen bidez, beste kideren bati zerbitzuak eskaintzeko aukera izango du, eta alderantziz.

Tolosako Udaleko Berdintasun Saila duela bi urte hasi zen egitasmoarekin, eta arduradunek azaldu dutenez, pixkana indarra hartu du Denbora Bankuak nahiz urteroko Truke Azokak.

• [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)

## → Laburrak

### Lau eguneko irteera antolatu du Oargik

**MENDIA** › Hurrengo asteburuko irteera antolatu du Oargik Pic Long (3.192 m) eta Pic Mechant (2.944 m) mendietara. Irailaren 28an irtengo dira, eta 30ean itzuliko dira. Kranpoiak, pioleta, arnesa eta kasakoa eraman behar dira. Azken izen-emate eguna irailaren 25a da, 688 69 86 42 telefonoz edo [info@oargi.org](mailto:info@oargi.org) helbidean.

### Izen ematea zabalik, Aitzol Udal Euskaltegian

**HEZKUNTZA** › Aitzol Udal Euskaltegiaren izen ematea zabalik da oraindik. Informazioa 943652343an nahiz [www.udaleuskaltegiak.net](http://www.udaleuskaltegiak.net)-en eta [www.tolosakoudala.net](http://www.tolosakoudala.net)-en

### Alpino Uzturren irteera igande honetarako

**MENDIA** › Alpino Uzturrek irailaren 23rako mendi irteera antolatu du. Txangoa Beherobie eta Chalet Pedrora (Irati) izango da. Errozate (1.345 m), Irau (1.152 m) eta Okabe (1.466 m) mendiak igoko dituzte. Autobusa 07:00etan irtengo da San Frantziskotik. Bazkideek 11 euro ordaindu beharko dute autobusa, eta bazkide ez direnek, beriz, 13 euro. Izen-ematea: 943 65 27 89ean edo [alpinozture@hotmail.com](mailto:alpinozture@hotmail.com)-en egin behar da.

### Turlach-en iralandar doinuak, bihar, Orbelan

**MUSIKA** › Orbelako Gauak egitasmoaren barruan, Turlach taldea ariko da bihar, 22:30etik aurrera. Iralandar doinuak eskainiko dituzte, eta tarteka euskal doinuak ere joko dituzte musikariek.

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Iragarki laburrak

### GALDUTAKOAK

■ **Argazki kamera.** Canon Isus 210 kamera galdu genuen pasaden igandean, Iturriotik Zelatun bidean edo, beharbada, Zelatunen bertan. Eskertuko genuke norbaitek igandean topatu izan balu, gurekin harremanetan jartzea, 688 68 50 04 telefonoz zerbakiari. Sarietugingodugu.

## Denbora internet bidez eskaintzeko aukera izango da aurrerantzean

→ Tik-Tak Truk denbora bankuko kideek, aurtengo berrikuntza nabarmenztat jo dute aplikazio informatikoa. Tresna honen bidez, jende gehiagorengana iristeko aukera izango dutela azpimarratu dute. Izan ere, herritar askok denbora bankuan parte hartu nahi izaten badute ere, batzuk bileretara joateko aukerarik ez dutela izaten azaldu dute. Horrela beraz, eta beste herri batzuetako denbora bankuetan oinarrituz Tolosako aberasteko helburuz, aplikazio informatikoa sortzeko ideia izan dute arduradunek. Parte hartu nahi dutenek [tiktaktruk@gmail.com](mailto:tiktaktruk@gmail.com)-era idatzi beharko du, ondoren izen-emate orria betetzeko. Jarraian aplikazioan bertan izena emateko aukera izango da, eta kide bakoitzak zer jaso eta zer eskaini nahi duen zehaztuko du.



ELAko ordezkariek, atzo, N-1 errepidearen alde batean, greba orokorrerako deialdia egiten. I.G.L.

## Irailaren 26ko greba orokorrerako deialdia egin du ELAk N-1 errepidean

Tolosaldeko eta Goierriko 120 ordezkariek elkartu dira protestan; lau enpresa handik baiezkua eman dute

**Imanol Garcia Landa**

ELA sindikatuak irailaren 26ko greba orokorrerako deialdia egin du N-1 errepidean, Iruratik Villabonara doan zatian. Tolosaldeko eta Goierriko 120 ordezkariek elkartu dira eta greba orokorrarekin bat egiteko eskatu diete errepideetik pasa direnei kartelak erakutsiz. Egoitz Iturbe eskualdeko koordinatzaileak azaldu duenez, «ikusten ari gara hedabide nagusiak grebaren zabalpenik ez direla egiten ari, eta eskualdean amorreri hori atera nahian egin dugu protesta hau. Arazo handi bat dago Euskal Herrian eta horren



ELAko ordezkariek elkarretaratzea egin zuten. HITZA

sozializazioa egiteko eta murrizketei ezezkoa emateko egin dugu deialdi hau».

Iturbek gaineratu du aste hau funtsezkoa dela: «Egunotan egingo dira batzar gehientsuenak, besteak beste, enpresa garrantzitsuenetan». Dagoeneko lau enpresa handitan grebari baiezkua

eman diote: Munksjo Paper (Eldua, Berastegi), Aralar Paperela (Amezketeta), Prodema (Legorreta) eta Gruas Jaso (Idiazabal). «Gure erronka aste honetan erreferentzia diren enpresetan baiezkua lortzea da eta hurrengo astean ziur beste ekintza bat egingo dugula», esan du Iturbek.

## Txintxarri abesbatzak eman dio hasiera ikasturteari

Entseguak asteartetan eta ostiraletan dituzte; Txintxarri elkartearen urteurrenean abestuko dute, igandean

**I. Garcia Landa** Alegia

Alegiako Txintxarri abesbatzak aste honetan hasi du ikasturtea. Uztaillera bitarte entseguak egingo dituzte urteari begira dituzten kantu emanaldiak prestatzeko. Udazkeneko emanaldien artean, urtero bezala Txintxarri Eguna antolatuko dute eta kontzertua

eskainiko dute. Baina horren aurretik, hil honen 23an herriko Txintxarri Elkartearen urteurreneko mezan kantatuko du abesbatzak.

Entseguak asteartetan eta ostiraletan egin ohi ditu gaueko 21:00etatik aurrera. Garbiñe Orbeagoz alegiarrak zuzentzen du ahots nahasietako helduen korua. Era guztietako musika lantzen du abesbatzak: euskal folklorea, euskal harmonizazio modernoak, gopela, musika sakroa, habanerak, brasildarrak, etab. Abesbatzan kantatzeko gogoia dutenek koruko norbaitekin jarri beharko dute harremanetan.

Musika eginez gozatu eta beste herrietako abesbatzekin harremanak egiteko modua da Txintxarri abesbatza, bertako kideen ustez: «Bertako musika landu eta harreman sozialak lantzeko bidea ematen du abesbatzak».

**Txintxarri Txikiren entseguak** Txintxarri Txiki haur eta gazte abesbatzak ere udazkenean hasiko ditu ikasturte honetako entseguak. Irailaren amaieran edo urriaren hasieran egingo dute lehen entseguak, baina oraindik eguna finkatu gabe dago. Datoren egunetan jakinaraziko dute entsegu eguna.

## Irudia ◊ Tolosaa



## ZIKOINAK BERAZUBI ESTADIOAN

Irudi bitxia ikusteko aukera izan zuten atzo arratsaldean Berazubi estadioaren ondotik pasa zirenak. Izan ere, estadioko fokuetan hainbat zikoina zeuden. Ziurrenik, hegoalderako bidean atsedena hartzeko gelditu ziren Tolosan. I.G.L.

## → Laburrak

### Podologoaren bisita izango dute gaur

**IKAZTEGIETA** Podologoaren bisita jasoko dute gaur ikaztegieta. Txanda hartu nahi duenak 943 65 33 29 telefono zenbakira deitu behar du.

### Euskara ikasteko ikastaroa antolatu du udalak

**ALEGIA** Udalak hastapen mailako euskara ikastaroa antolatu du. Izena kultur etxean eman daiteke eta horretarako epea hilaren bukaera arte dago.

### Zinpeko epaimahairako zerrendak ikusgai

**TOLOSA** Tolosako Udalak jakinarazi duenez, indarrean dagoen zinpeko epaimahairako zerrenden erakusketa jendaurrean jarrita egongo da udaltzeko beheko solairuan, hilaren 20tik 28ra. Erreklamaziorik egin nahi izanez gero, NANaren, pasaportearen edo gida-baimenaren fotokopia aurkeztu behar da udaletxean.

### Hiru ikastaro antolatu dituzte kiroldegian

**IKAZTEGIETA** Ikaztegieta kiroldegian hainbat ikastaro antolatu dituzte. Mantentze gimnasia, aerobik eta pilates egiteko aukera izango da. Izena eman nahi duenak udaletzeko 943 65 33 29 telefono zenbakira deitu behar du. Horretarako azken eguna hilaren 25a izango da.

### Ikastaroetan izena emateko aukera

**ALEGIA** Hilaren 28ra arte izena eman daiteke udalak martxan jarri dituen ikastaroetan. Aerobik, gazteentzako aerobik, 3. adinerako gimnasia eta gimnastika erritmikoa dira egin daitezkeen ikastaroak.

### Bilera egingo dute kultur astea antolatzeko

**AMEZKETETA** Bilera egingo dute gaur bi gairen inguruan. Alde batetik, aurtengo herriko jaien balantzea egingo dute, eta, bestetik, kultur astearren antolatzen inguruan hitz egingo dute. Bilera erabileraren antzeko gelan izango da, 20:30ean.

Beti nahi jatetxea

Garaian garaiko janariak

Arraikietan bereziki

943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Errementeri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

## MENDI-ALDE

Eguneko menuak eta karta Bataioak, Jaumartzeak...

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA



## Indarkeriarik gabeko komunikazioa tailerra emango dute

Norbere buruarekin eta ondokoekin ditugun harremanak hobetzeko lagungarri da; hilaren 28an eta 29an izango da

**I. Terradillos** Ibarra

Ibarrako udalak eta Uzturpe ikastolak antolatuta, datorren ostiral eta larunbatean, hilaren 28an eta 29an indarkeriarik gabeko komunikazioa tailerra izango da. Nerea Mendizabal psikopedagogoa eta gizarte hezitzaileak emango du ikastaroa.

Azkue auzoko lokalean izango da, eta 50 euro ordaindu beharko da. Izena eman nahi duenak hilaren 25a baino lehen joan beharko du Ibarako gizarte zerbitzuetara, eta informazio gehiago nahi duenak, berriz, 943 67 12 99 telefono zenbakira hots egin beharko du.

Indarkeriarik gabeko komunikazio tailerra norbere buruarekin eta ondokoekin harremanak hobetzeko lagungarria dela diote antolatzaileek. «Tresna sinple, zehatz, praktikoa, eta aldi berean, eraginkorra eskaintzen du». Gizabanako eta taldeetan irakatsi eta aplikatzen da, eta sentitzen duguna zintzotasunez adierazteko aukera ematen duela azaldu dute.

o ibarraldea@hitza.info

## Azpeititik Zestoarako mendi ibilaldia egingo du Mendibil taldeak

Igande honetarako antolatu du Leitzako taldeak; Erlo mendia igoko dute, eta Zestoan bazkalduko dute

**I. Terradillos** Leitza

Leitzako Mendibil mendi taldeak irteera antolatu du igande honetarako, hilaren 23rako. Hain zuzen ere, Azpeititik Zestoara bitarteko bidea egingo dute Erloetik igaroz.

Leitzatik 08:00etan irtengo dira, eta 19:00etarako itzuliko dira. Leitzatik joan-itzulia autobuzez egingo dute. Azpeititik 1.026 metro dituen Erlo gailurra igoko dute, eta handik Zestoara joango dira. Leitzako mendi taldeak adierazi dutenez, 4 ordutan egiteko moduko ibilaldia da.

Zestoara ailegatzen direnean, bertako elkartera joango dira bazkaltzera. Mendi irteera honean parte hartu nahi dutenek 25 euro ordaindu beharko dute, eta bazkideek, berriz, 20 euro. Gaur izango da izena emateko azken eguna. [mendibilaurrera@hotmail.com](mailto:mendibilaurrera@hotmail.com) helbidean edo Astiz edo Maimur liburudendetan eman beharko da izena, eta informazio gehiagorako [www.blogak.com/mendibilaurrera](http://www.blogak.com/mendibilaurrera) helbidera jo daiteke.

o leitzaldea@hitza.info



Marce Tena Ibarako kultur etxean, pasa den ikasturtean tallerrean parte hartu zuten gazteekin. ir.

Marce Tenak zuzenduriko marrazketa, adierazpen artistikoa eta pintura tallerrean landutako lanak daude ikusgai Ibarako kultur etxean; 6 eta 10 urte bitarteko zortzi gaztetxok hartu zuten parte iazko ikasturtean.

# Artista gazteak hezten

**Iñigo Terradillos** Ibarra

**M**arrazketa, pintura eta adierazpen artistikoa landu dute 6 urtetik 10 urte bitarteko gazteek pasa den ikasturtean Marce Tenak zuzenduriko tallerrean. Bada, bertan osaturiko lanak jarri dituzte Ibarako kultur etxean, eta irailaren 28ra arte egongo dira ikusgai, goizez nahiz arratsaldez.

Makilajea ikasi du Marce Tena ibartarrak, eta helduentzat ikastaroak eman izan ditu, baina lehen aldiz aritu da gaztekoekin lanean. Marrazkigintza betidanik gustatu izan zaiola dio, eta bere kabuz ikasi du, autodidakta da. «Gaztekoentzako taller bat zuzentzera animatuko ote nintzen galdetu zidaten Ibaratik, eta nik baietz erantzun nien», dio. Pasa den urtekoa estreinako esperientzia izan da, eta lehena izateko, «oso polita eta aberasgarria» izan dela azaldu du. «Zortzi neska-mutilez osaturiko taldea osatu genuen, eta bai gaztekoak, bai eta ni ere oso gustura gaude egindako lanarekin». Horren seinale da tallerrean parte hartu duten zortziek errepikatu egingo dutela.

### «Nabari da gustatzen zaiela»

Tallerrean denetarik landu dute artista gazteek. Pasta modelatzen aritu dira, koadroak erliebean egin dituzte, kareta edo kataloak landu dituzte eta collageak egiten ikasi dute, besteak beste. «Nabari da benetan gustatzen zaielako eta ikasi nahi dutelako etortzen direla tallerrean, eta ez behartuta», dio. Izan ere, «koloreekiko edo pinturarekiko zaletasuna eta jakinmina dutenez, gaz-



Goian, kareta edo kataloak, eta behean margotuz egindako irudiak. ir.

tetxoak oso pozik egon dira eta asko gozatu dute».

Ikastaroa «ahalik eta arinen eta didaktikoan» egiten saiatzen da Tena, «ongi pasa dezaten, gozatu dezaten eta aldi berean ikasi eta hobetuz joan daitezen». Arterekin barruan arlo ugari jorratzen ditu. «Probatuz joaten naiz, eta

horrela ikusten dut zein arlo gustatzen zaien gehien, eta azkenean, horiek lantzen ditugu gehiago», azaldu du.

Bertan izena eman nahi duenak aukera badu oraindik. Horretarako, Ibarako kultur etxera joan beharko du.

o ibarraldea@hitza.info

**Bertako informazioari bertako produktuak**

**Egin HITZAren harpidedun irailaren 3tik urriaren 26ra eta jaso artzai gazta, Idiazabal jatorri izenarekin, OPARI**

Hitzaren harpidedunen artean, bi pertsonentzako asteburu baterako egonaldia zozkatuko dugu

Artizano nekazalburuzineak Zinzanga, 46 HONDARRIBIA (Gipuzkoa) Tel: 943 042 337 / 955 721 834 www.rekatur.net/artizano

hitza info

# 'Urki' eta Alkorta erlojuari kiloak irabazi nahian

Korrika eta sega apustua Zizurkil Goiko Zaldu sailean jokatu da hilaren 23an, igandean, 11:30ean

Asier Imaz Zizurkil

Jexuxmari Ormaetxea *Urki*ren eta Mikel Alkortaren arteko korrika eta sega apustua igande honetan izango da, hilaren 23an, 11:30ean hasiko da lehia, Zizurkil Goian, hain zuzen ere, Zaldu sailean. Epailea, ordularia izango da, eta bere arabakia, kiloetan oinarrituko da.

*Urki* eta Alkorta segalariak korrika hasiko dira sailaren inguruan egongo den zirkuituan. Bost

kilometroko distantzia egin ondoren, segari helduko diote ordu eta erdi osatu arte, hau da, 13:00ak arte. Une horretan, apustulariek sega lurrean utzi beharko dute. Belar gehien moztzen duena izango denez irabazlea, korrika lehen amaitzen duenak abantaila izango du, denbora gehiago ariko baita segan.

## Sarrerak eta saria

Herri kirol munduan ez da ohikoa horrelako apustua; korrika eta sega uztartzen dituen desafioa. Jexuxmari Ormaetxea orendain-darra Euskal Herriko sega txapel-duna da, eta Mikel Alkorta asteasuarra txapeldunordea. Uztailean Leitzan jokatu zen lehian, *Urki*k Alkortari, hau da, lehenak bigarrenari, 77,5 kiloko aldea ba-

karrik atera zion, ordubeteko lanaren ondoren. Emaitzek goi mailako bi herri kirolari direla erakusten dute, eta elkarren aurka lehian ikusteko aukera ezin hobea izango da igandekoa. 12 urtez azpikoek sarrera dohainik izango dute, eta gainontzekoek 20 euro ordaindu beharko dituzte.

Apustu guztietan ohorea egoten da jokoan, baina desafioari bixitasuna emateko, 3.000 euro irabaziko ditu belar gehien moztzen duenak, sari hori jarri baitute jokoan segalariak.

Desafioa Tolosako Kantabriko tabernan itxi zen. Bertatik, apustuak ikusmina sortu duela diote: «Beti mugitzen da dirua, eta orain ere ari da: parean. Agian, pixka bat, *Urki*ren alde, baina pare-parean dabil».

Mikel Artola • Segalaria

## «Ez da alde handiegirik egongo korrika»

A. Imaz Asteasu

Euritan ere segan oso gustura ibiltzen dela dio Mikel Alkortak (Donostia, 1971), baina hamabi urte Asteasun bizitzen daraman segalariak, eguraldi ona nahi du iganderako; jendea hurbiltzeko eta baita korrika lasai egiteko ere. Uztailean, Euskal Herriko Sega Txapelketan, bigarren postuan gelditu zen Alkorta.

### Gustura al zaude apustuarekin?

Bai. Hasieran korrika gehiago nahi nuen, mendi buelta bat edo. Ni ez naiz oso iaioa horrelako tratuak ixtean, baina sentsazio onekin atera nintzen Kantabriotik. Ez dut uste han ezer galdu edo irabazi nuenik.

### Zirkuitu batean ariko zarete korrika.

125 metro inguruko bueltaxo bat jarriko dugu, belazaren inguruan, eta 40 itzuli eman beharko dizkiogu.

### Apustuaren ideia nondik etorri zitzaizun?

Aurten txapelketa oso parekatua izan zen, eta hortik etorri zen apustuaren ideia. Gipuzkoako Lizasok erraz irabazi zuten, kasu honetan, *Urki* gaixorik zegoen, eta ez zen atera. Leitzan, Euskal Herrikoan, 100 kiloko tartean ibili ginen lau segalariak, pare parean. Azken momentura arte ez genuen jakin sailkapena nola geldituzen.

### Faborito argirik dagoenik ez du ematen.

Segan oso gustura nabil, baina bera jantziago dago. Korrika tarte pixka bat aterako ote nion pentsatzen nuen hasieran, baina berak oso marka onak eginak ditu, eta ez dakit aldea nork nori aterako dion. Alde horretatik, bost kilometroan utzi izana ideia ona izan



HITZA

zela uste dut. Ez da diferentzia handirik egongo korrika, eta segan ere nahiko berdintsu ibiltzea espero dut.

### Aurten jauzi kualitatiboa eman duzula dirudi, emaitzak kontuan hartuta.

Segan duela sei edo zazpi urte hasi nintzen, eta urtero hobetzen noala ikusten dut. Aurten, aurrean ibiltzen diren horiengana gerturaztea lortu dut. Sekula ikasten ez den ofizioa da hau, oso teknikoak, eta baita fisikoak ere. Ikasten jarraitu behar da etengabe. Igandeari begira, *Urki* oso segalari gogorra da, baina borroka pixka bat ematea espero dut.

### Nolatan apustua Zizurkil?

Udako lehorreak ikusita, erreka ingurura jaitsi gara. Gipuzkoako Nekola baserriaren inguruan egin genuen, oso toki politean, eta oraingo saila ere bertan aurkitu dugu.

### Zer moduzko belarra dago?

Ez dauka aitzakiarik. Ur pixka bat bota diogu, eta azken euriekin niretzat behintzat oso ondo dago segan aritzeko: azpi oso ona dauka eta samurra dago, gozatzeko moduan.

Jexuxmari Ormaetxea 'Urki' • Segalaria

## «Txapela irabazi nuen, baina ez nuen abantailarik ikusi»

A. Imaz Orendain

Parean ikusten du apustua Jexuxmari Ormaetxea *Urki*k (Orendain, 1974). Leitzan, uztailean, jokatuak Euskal Herriko Txapelketan belar gehien berak moztu zuen, baina argi eta garbi dauka Alkortari alde handirik ez ziola atera.

### Lizasorekin ezin apustua egin, eta azkenean, Alkortarekin lotuzenuen.

Egun batetik bestera izan zen gainera. Ostiralean Lizasorekin elkartu nintzen, eta larunbatean Alkortak bota zidan apustua. Berak korrika zortzi kilometro nahi zituen, eta nik gutxiago, azkenean bostean lortu genuen adostasuna, eta apustua horrela itxi genuen.

### Sarri esan ohi da apustua mahaian galtzen edo irabazten dela. Gustura al zaude baldintzekin?

Ni gustura gelditu nintzen; gero zer gertatuko den ez dakidan arren. Mahaian asko irabazten dela uste dut batzuetan, eta hori



HITZA

gertatu zitzaidan azken apustuan, aizkorakoa.

### Korrika nola moldatzen zara?

Duela 10 urte, korrika gustura ibiltzen nintzen: Behobia, maratoia, krosak... gero segan hasi eta korri egiteari utzi nion. Orain entrenatzen hasi naizenean, denbora horretan asko galdu dudala ikusi dut, kosta egiten zait.

### Entrenamenduetan, segan baino gehiago ari al zara korrika?

Ez, gainera, korri asko egitea kaltegarria da segarako; ez da ahaztu behar ordu bete baino gehiagoko lana izango dugula segan.

### Euskal Herriko txapelduna zara segan, abantaila izango duzula dirudi.

Txapela irabazi nuen baina ez nuen abantailarik ikusi Leitzan. Ordubeteko saioan 77 kilo ez da ezer, eta Alkortak argi erakutsi zuen segan asko egiten duela. **Batzuk nahikoa dute hori, zu faborito moduan ikusteko.**

### Txapela irabazi dudalako izango da, baina nik pertsuan ikusten dut apustua, bai segan eta baita korrika ere.

Ez dut uste bost kilometrotan abantaila handirik ateratzeko aukera izango denik, eta gero segan, ikusi egin beharko da. **Ikuskizun polita antolatuz duzuela behintzat, argi dago.**

Eguraldiak pixka bat laguntzen baldin badu, ikusteko polita izango dela uste dut. Horrelako apusturik ez dela egin uste dut gainera, korrika eta segan. Ikuskizun polita eskaintzen saiatuko gara.

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

•Izen-abizenak:

•NA:

•Lanbidea:

•Jaioteguna:

•Helbidea:

•Herria:

•P.K.:

•Tel.:

•Posta elektronikoa:

•Kontu zenbakia:

**TOLOSALDEKO hitza**  
ETA LEITZALDEKO  
bertako egunkaria  
egin zaitez harpidedun!

**902-82 02 01**

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

tolosaldea.hitza.info  
leitzaldea.hitza.info

eraman/bidaliz izen-emate orria:  
Araba etorbidea 5 behean, atzea - 20400 Tolosa

## Joanes Gibelalde ◉ Bidaiaria

Mugikortasun Astearen barruan Joanes Gibelalde ikus entzunezkoa eskainiko du, gaur, Antxon Bandres Bidaiariaren Txokoan, Tolosako Errotan. 'Hegoaldera bizikletaz' emanaldia 19:30ean hasiko da.

## «Bizikletarekin ikustean, jendeak ez zaitu mehatxu moduan hartzen»

Asier Imaz Tolosa

Bizikleta lagun zuela, Joanes Gibelalde (Tolosa, 1976) Amerika zeharkatu zuen duela lau urte. Hori nahikoa ez, eta Tolosara itzuli zenean, Istanbulerako bidea hartu zuen, gurgildun ibilgailu ekologikoaren gainean. Mugikortasun Asteari bere bizipenek emango diote hasiera, gaur.

### Nola kontatuko duzu bizikleta gaineko abentura hori?

Sarrera moduan, bideo txiki bat jarriko dut. Ondoren, 40 minutuko saioan edo, argazkiak ikusiko ditugu, eta hauek komentatzen joango naiz. Amaiera aldean, beste bideo bat jarriko dut. Irudietan bidaiaren nondik norakoak ikusten dira, ikusleak ideia txiki bat egin dezan.

### 26.000 kilometro 17 hilabetetan.

#### Nondik sortu zitzaizun ideia?

Pixkana pixkana joan zen gauzatzen. Horrelako gauzak lasaitasunez hartuta ateratzen dira. Aurrez, Europan zehar bidaia batzuk egin nintzen, eta zerbait handiago egin nahi nuen. Gustukoa nuen Amerika goitik behera zeharkatzeko ideia, eta horrela joan nintzen. Alaskatik hasi eta Argentinara, hamalau edo hamabost herrialde zeharkatu. Ondoren, Tolosatik Istanbulera joan nintzen, beste horrenbeste herrialde ezagutuz.

**Mugikortasun Astearen barruan, besteak beste, ongi ezagutzen duzu ibilgailu horren erabilera bultzatu nahi da, autoa alboratuz. Bidaian oinarri-**



HITZA

### tuta, zein da zure hausnarketa gain honen inguruan?

Trabak gutxitu eta laguntza gehitu egin behar dela. Adibide bat jarzteagatik, Ameriketako Estatu Batuetan edo Kanadan, autobusek parrilak zituzten. Sistema oso erraza da, eta ez du kostu handirik.



Alaskatik Argentinara. HITZA

rik, baina aldi berean, bizikletaz mugitzeko laguntza handia da.

### Europako hirietan bizikleta modan jartzen ari dela dirudi.

Hemen baino askoz gehiago ibiltzen da. Bidegorrien sare gehiago daude, eta hemen ez bezala, elkarrekin ongi lotuak daude. Trabak ez jartzea eskatuko nuke nik.

### Bizikletarekin nolako harremana izan duzu bidaian?

Estua. Niretzat, ez da mugitzeko balio duen ibilgailu bat bakarrik, jendearengana iristeko balio duen zerbait da; asko laguntzen du. Jendeak bizikletarekin ikustean, ez zaituzte mehatxu moduan hartzen, laguntzeko prest azaltzen da. Aurkezpen edo pasaporte moduan oso lagungarria da, bai herrixketan eta baita mugetan ere. Jendeak atzean dagoen esfortzu guztia ikusten du, eta esker-tzekoa da.

## Euskararen aldeko herri lasterketa antolatu dute

Villabona eta Zizurkil artean egingo dute korri larunbatean 17:00etatik aurrera, 'Euskaraz bizi nahi dut' izenpean

A. Imaz

Villabona eta Zizurkil artean *Euskaraz bizi nahi dut* herri lasterketa antolatu dute, hilaren 22an, 17:00etan. Kontseilua, Zumbeltz eta Urkamendi elkarrekin eta Euskararen Ados lan mahaia daude ekimenaren atzean, eta Villabonako eta Zizurkilgo udalen, ikastetxeen, EHE-ren, Banaizbargara taldearen eta Gaztelekuaren laguntza jaso dute lasterketa antolatzerako uanean.

Lasterketan parte hartzeko izena eman behar da, euskara zerbitzuan, hilaren 20an edo egunean bertan. Ostegunean, Villabonako

Berdura plazan jarriko dute postua 17:00etatik 19:00etara, eta hilaren 22an irteera puntuan. Haur eta gazteek, *Euskaraz bizi nahi dut* kamisetarekin korri egin nahi baldin badute, 7 euro ordaindu beharko dituzte. Kamisetarik erosi ez baldin badute nahi, izen ematea 2 eurokoa da. Helduen kasuan ere bi aukera egongo dira: kamiseta eskuratu nahi izatekotan, 10 euro ordaindu beharko dituzte, eta 5 euro berriz, kamisetarik hartzen ez baldin badute. Izena ematen duten guztien artean, lasterketa amaieran opari zozketa egingo dute. Herri lasterketa honekin, antolatzaileek euskaraz bizitzeko nahia agertu nahi izan dute: «Familia giroan egiteko moduko ekimena da aurkezten dizueguna. Familiaren artean lasterka egin, euskaraz noski, eta ongi pasatzea da helburua». Talde lana sustatu nahi dutenez, lasterketa lehiakorak ez direla izango azaldu dute.

## Ume festako bazkarian izena emateko aukera

Ostiralean hasiko diren Irurako jaietako danborradako bigarren entsegua gaur izango da, 19:00etatik aurrera

A. Imaz Irura

Irurako sanmielak ostiralean hasiko dira. Ume festako bazkarian parte hartu nahi dutenek, izena aurrez eman beharko dute, eta horretarako epea gaur amaitzen da, liburutegian. Bazkaria larunbatean izango da. Jaiekin jarrai-

tuz, danborradako azken entsegua gaur izango dela azaldu dute udaletik, Zilar kaleko ikastolan, 19:00etan.

### Xare eskola

Ikasturte berria abian den honetan, Irurako Xare eskolan izena eman nahi dutenek hilaren 26ra bitarte edukiko dute horretarako aukera. Matrikula egiteko asmoa dutenek, edo besterik gabe, informazio gehiago nahi dutenek, 943 69 26 74 telefono zenbakira deitu beharko dute. Trinkete berri-tuaz gozatzeko aukera paregabea eskainiko du Xare eskolak.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarrita  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**



# Bertako produktuen erakusleiho

Ibarra Azoka eta Piparra azoka berezia egingo dute igande goizean, inoizko postu kopururik handienarekin

**Iñigo Terradillos** Ibarra

«Indartsu» dator aurtengo Ibarra Azoka eta Piparra. Ibarrrako Hauspoa kultur elkarteak antolatzen duen azoka bereziak «inoizko postu kopururik handiena» izango du, 65 orotara. Hamahirugarren azoka da aurtengoa, eta ohi bezala, berrikuntza ugariarekin dator; esaterako, merkatariek euren gunea izango dute. Azoka igande goizean izango da bi gunetan banaturik, San Bartolome plazan eta Emeterio Arrese parkean.

Bertakoa herrian ezagutaraztea da azokaren helburua. «Ibarrran landa eremuan gauza asko lantzen dira eta azokaren bidez, jendeari bertako produktuak gerturaztea lortu nahi dugun», adierazi du Jaione Bengoetxea Hauspoa elkarteak kideak. Urteik urtera, indar handia ari da hartzen ekimena, eta horren adierazle da, aurtengo postu kopurua handia: «Eskara ugari izan ditugu, eta hori poztekoa da, baina, askori ezetz esan beharra izan diegu, lekurik ez baitzen geratzen».

Pasa den urtean, berrikuntza moduan, Emeterio Arresen lekutu zituzten jakiak eta abereak, eta aurtengoa ere bertan izango dira. Hori, merkatarien txokoa gehituko zaie. San Bartolome plazan, bestalde, artisauen postuak egongo dira. Gainera, Tolosaldeko Arraun Klubak ere bere lekua izango du, plazan bertan traineru bat jarriko baitute erakusgai.

## Askotarko postuak

Azoka 10:00etan hasiko da, eta 14:00etan amaitu, eta ondoren, plazan herri bazkaria egingo dute. «Egun guztia lanean egon ondoren, tripa beteta eta alai bu-



Postu ugari izango dira ikusgai igande goizean Ibarrran. Irudian, bi herritar iazko azokan. SARA GOMEZ

katzeko aitzakia izango da», azaldu du Hauspoa elkarteak kideak.

## Askotariko postuak

San Bartolome plazatik Emeterio Arreseraino luzatuko da azoka, baina bertako guneetan ere izango da zer ikusi. San Bartolome plazan Ibarrrako zein inguruko artisauen postuak egongo dira. Hainbat motako lehengaiak lantzeko moduak ikusi ahalko dira, hala nola, egurra eta zeramika. Uzturpe ikastolako materiala erosteko aukera izango da, eta Ibarrrako misio taldearen proiektuak ezagutu eta lagundu ahalko dira, euren postuetako artisautza eta jakiak erosiz. Kultur etxeko pintura eta ehoziri tailerretan eginkoak ere jarriko dituzte ikusgai.

Plazako zubia igaro eta Araneira doan bidean ere eskualdeko zein kanpoko artisauen postuak topatu ahalko dira. Horietan, sendabelarrak, bitxigintza, larruzko oinetakoak... egongo dira. Gaztetxoek bestalde, Marce Tenaren kamisetak pintatzeko tailerretan parte hartu ahalko dute.

## Ganadua eta jakiak

Emeterio Arreseko parkearen inguruan, Ibarrrako baserriarrek

abereak jarriko dituzte ikusgai. Ibarrrako baserrietan dauden animalia mota guztiak ikusteko aukera izango dute bertaratzen direnek: behiak, zaldiak, oiloak, euskal arrazako txerriak eta txerrikumeak, euskal pottokak, asptoak, ahuntzak, akerrak, antxumeak, oilaskoak, oiloak, txitak edota ahateak.

Gune honetan, 12:00etatik aurrera, burrunzti erara erretako Ibarrrako euskal arrazako txerria pintxo bidez dastatzeko aukera izango da. Tolosaldeko XV. Ezti Lehiaketa ere egingo dute Emeterio Arresen. Halaber, taloak, sagardoa, ardoa, ogia, gozoak, Iparaldeko zein bertako gaztak eta babarruna izango dira.

## Piper lehiaketa eta topaketa

Ibarrrako ikurra den piperrak ezin zuen hutsik egin, noski, Ibarra Azoka eta Piparra azoka berezia. Xepla elkarteak antolatuta, Ibarrrako Piperraren VIII. Lehiaketa Gastronomikoa egingo dute. Antolatzaileak «oso pozik» daukela adierazi dute, «ekimenak Euskal Herri mailan egiten diren lehiaketa gastronomikoen egutegian geroz eta indar handiago baitu». Lehiaketako 22 sukaldeak daogeenok beteak dituzte. Xepla el-

kartetik parte hartzaileen eta epaimahaiaren maila ere nabarmendu dute, «sinesgarritasuna eta ohorea» ematen baitiote lehiaketari. Lehiaketaz gain, piperraren topaketa ere izango da, Ibarrra, Zarautz, Gernika, Lodosa eta Ezpeletako piperrekin. Aurtengoa, lehen aldiz, piper erregailua ere jarriko dute.

## Merkatarien txokoa

Ibarrrako merkatarien elkarteak estreinakoz euren txokoa izango du Ibarrrako azoka berezian, Emeterio Arresen, hain zuzen. Gaztetxoentzat jokoak, puzgarriak eta pailazoa egongo dira, eta sorpresaren bat ere izango dute. Gainera, argazki lehiaketa parte hartu ahalko dute. Azokari egin beharko dizkiote gazteek argazkiak, eta ondoren, [ibarrakomerkataritza@gmail.com](mailto:ibarrakomerkataritza@gmail.com) helbidera bidali. Opari politik eskuratu ahalko dituzte.

Era berean, azoka egunean bertan, eta goiz osoa zehar, merkatariek oparienez zozketa egingo dute. Merkatarien elkartearen barruan dauden dendetan erosi duten herritarrek erosketa txartela-rekin hartu ahalko dute parte zozketan.

• [ibarraldea@hitza.info](mailto:ibarraldea@hitza.info)

## → Laburrak

### Erretirodunen eguna ospatuko dute Leaburun

**LEABURU** Erretirodunen eguna ospatuko dute igande honetan, hilaren 23an, Leaburun. Urteroko moduan, bazkaria egingo dute Zazpi Bide elkartearen. Horrez gain, meza, herriko dantzarien saioa, bertsolariak eta trikitixa ere izango dira.

### Alurr dantza eskolan izena emateko aukera dago

**IBARRA** Ibarrrako Alurr dantza eskolan urrian hasiko dira ikasturte berriarekin. Bertan parte hartu nahi dutenek oraindik ere badute izena emateko aukera, iraila bukatu bitarte. Ibarrrako kultur etxean eskura daitezke matrikula orriak. Informazio gehiagorako edo zalantzak argitzeko kultur etxera dei daitezke, 943 67 03 99 zenbakira, edo Alurr dantza taldearen zenbakira, 635 757 048. [alurr@alurr.net](mailto:alurr@alurr.net) helbidera mezu bidaliz, edo Alururen webgunera ([www.alurr.net](http://www.alurr.net)) joz ere informatu daitezke.

### Izaskun izena dutenen festa, igande honetan

**IBARRA** Izaskun izena dutenen jaia antolatu dute beste urte batez, igande honetarako, hilaren 23rako, Izaskunen. Eguerdian, VIII. Toka Txapelketa egingo dute, eta ondoren, meza izango da Izaskungo baselizan. Bazkaria Izaskun jatetxean egingo dute, Iñigo Perurrenaren orkestrak alaiturik. Animatzen direnek 943 67 59 27 zenbakian eman beharko dute izena. Bihar izango da horretarako azken eguna.

### Urrian hasiko dira ikastaroak, Belabietan

**IBARRA** Ibarrrako Belabieta kiroldegian urriaren 1ean hasiko dira kirol ikastaroak. 943 67 15 44 telefono zenbakira hots egin daitezke, edo [kirolibarra@yahoo.es](mailto:kirolibarra@yahoo.es) helbidera idatzi informazio gehiagorako.

## ↓ Ibarra Azoka eta Piparra

### AZOKA

- **Noiz.** Igande honetan, hilaren 23an, 10:00etatik 14:00etara.
- **Non.** Bi gunetan banatuko da: San Bartolome plazan eta Emeterio Arrese parkean.

### SAN BARTOLOME

- **Postuak.** Ibarrrako zein inguruko artisauen postuak egongo dira. Uzturpe ikastolako postua jarriko arroparekin; Ibarrrako misio taldeak bi postu jarriko

ditu artisautza eta jakiekin; kultur etxeko tailerrekoen lanak ikusgai izango dira. TAKekoek traineru bat jarriko dute ikusgai. Plazako zubitik igarota ere postuak egongo dira sendabelarrak, bitxiak eta larruzko arroparekin.

- **Tailerria.** Marce Tena ibarrrak gidatuta, kamisetak margotzeko tailerra egingo dute plazan, gaztetxoentzat.
- **Bazkaria.** 14:30ean. Txartelak 20 euroren truke daude salgai herriko tabernetan.

### EMETERIO ARRESE

- **Abereak.** Ibarrrako baserrietako animaliak egongo dira ikusgai.
- **Postuak.** Jakiak dastatzeko aukera izango da: taloak, ogia, sagardoa, ardoa, babarruna, gozoak, gazta...
- **12:00.** Burrunzti erara erretako euskal txerria, pintxo bidez banatuko dute.
- **Lehiaketa.** Tolosaldeko XV. Ezti Lehiaketa, Piperrada eta Pintxo Lehiaketa. Piperradara-

ko Ibarrrako piperra nahitaez sartu beharko dute sukalderiek. Pintxoetan, Ibarrrako piperraz egindako sei pintxo (denak berdinak) eta nahi adina osagaiez eginak prestatuko dituzte.

- **Piper topaketa.** Ibarrrako piparra, Zarauzko lau kantoi, Gernikako piperra, Lodosa pikillo piperra, Ezpeletako biperra eta Biper ezti (Lapurdi).
- **Merkataria.** Haurrentzat jokoak, puzgarriak eta pailazo bat; argazki lehiaketa eta oparienez zozketa egingo dute.

## 2012ko USATEGIEN ENKANTEA BIRIGARRO ETA USOA ARESO(NAFARROA)

TEL 948-510 327-608-928 626

Donostiatik 20 minututara Paradetaraino sarbidea kotxez

Enkantea Udaltxeko Batzar Aretoan burutuko da.

**1go enkantea:** irailaren 22an, larunbata, 19:00 ordutan  
**2. enkantea:** irailaren 29an, larunbata, 19:00 ordutan



21°  
11°

GOIZA	OSKARBI
ARRATSALDEA	LAINTUTA
BEROENA	26°
HOTZENA	18°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoeta:** 687 410 022. anoetaldea@hitza.info  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@hitza.info

**Tolosa Herria  
Hedabideak**

**BERTAKO  
HEDABIDEAK**



**Galtzaundi  
euskara  
taldea**



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaldeko  
beste 77 eragile


**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. **Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

## XVI. Argazki Lehiaketa



## PAISAIEN EDERTASUNAREKIN GOZATUZ

Ohikoa da oporretara joandako lekuetan paisaiari argazkiak ateratzea. Lehen argazkia, Irati Lancetak bidali du: «Motxilak bizkarrean hartuta Croazia inguruan ibili gara. Krkako parke naturala da, eta ur jauzi horretan bertan bainu bat hartu aurretik ateratakoa da». Bigarren argazkia, Miguel Angel Lopezena da: «Izaba inguruan ibili gara, eta argazkia Hiru Erregen Mahaia igotzera joan ginenean Linza ater-

petxetik aterata dago». Tere Urruzolen irudia da hirugarrena: «Sallent de Gallegotik gora Balaitus mendia igotzean aterata dago. Bertako lakua ikusten da». Azkena, Antonio Irazustarena da: «Terma beroen edertasuna». Lehiaketan parte hartzeko argazkiak [thargazkiak@hitza.info](mailto:thargazkiak@hitza.info) helbidera bidali behar dira, eta azken eguna urriaren 2a, asteartea, izango da. IL-M.A.L.-T.U.-A.I.

### Agenda

#### DEIALDIAK

- **Alegia.** Euskara eta Kultura Batzordeak, gaur, bilera egingo du. 18:30ean izango da, kultur etxean. Herrian ospatzen diren kultur jarduera eta ekitaldien antolakuntza lagundu eta parte hartu nahi duten guztientzat da.
- **Amezketa.** Herriko jaietako balorazioa egiteko eta kultur astea antolatzen hasteko bilera egingo dute, gaur, 20:30ean. Plazako erabilera anitzeko gela elkartuko dira.
- **Leitza.** Hilaren 23an Azpeitia, Erlo eta Zestoa arteko ibilbidea egingo du Mendibil Mendi taldeak. 08:00etan Leitzatik aterako dira eta itzulera 19:00etan izango da. Izena emateko [mendibilaurrera@hotmail.com](mailto:mendibilaurrera@hotmail.com) helbide elektronikora idatzi behar da. Gaur da izena emateko azken eguna.
- **Tolosa.** Alliri auzoko festetako hilak 29ko bazkarirako txartelak Alliri tabernan erosi daitezke, hilaren 23a baino lehen. Helduek 15 euro eta txikiek 6 euro ordaindu beharko dute.

### Farmaziak

#### GAUR

- **Tolosa.** Egunekoa: Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 67 01 28. Gauekoa: Etxebeste, J. M. Gernikako Arbola, 3. Telefonoa: 943 65 10 40.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
- **Iruztun.** Mutiloa, A. M. San Martin, 5. 112.

HITZAk ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.



Bidali zure argazkiak [thargazkiak@hitza.info](mailto:thargazkiak@hitza.info) helbidera!

Parte hartzaileen eta bozka ematen dutenen artean, HITZAko materiala zozkatuko dugu.

## XVI. HITZA Udako argazki lehiaketa

Sari mundialak!

**1.Saria:** Elantxobeko Ogoño Mendi landetxean, bi pertsonentzako bi gaueko egonaldia. Bermokiz,6-48310 (ELANTXOBE) Tel.: 657 716 648

**2.Saria:** Photokaferen eskutik, argazki-album analogikoa. [www.ardnazesstudios.com](http://www.ardnazesstudios.com)

**3.Saria:** Orue erretegia, bi pertsonentzako otordua. Samaniego kalea, 3-Tel.: 943 65 19 11- 20400 (TOLOSA)